



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiko Udaletxea

EGUNA / FECHA: 15/7/2015

HASIERA / INICIO: 20:45

AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udaltzatzen idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotzietan banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Energia eraginkortasuneko jarduketetarako diru-laguntzak.-

1007/15 Foru Aginduaren, ekainaren 4koaren, berri eman zitzaion Tokiko Gobernu Batzordeari. Agindu horren bidez, 11.603,74 euroko diru-laguntza eman zaio udal honi, "Busturiako argiteria publikoan energia eraginkortasuna hobetzea" izeneko jarduketa gauzatzeko.

Hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez:

- 1.- Diru-laguntzak onartzea.
- 2.- Lanak kontratatzeke izapideak bideratzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

1.º.- Subvención para actuaciones de eficiencia energética.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la Orden Foral 1007/15, de 4 de junio, por el que se concede a este Ayuntamiento una subvención de 11.603,74 €, para la actuación denominada "Mejora de la eficiencia energética en el alumbrado público en Busturia".

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.º.- Aceptar la subvención.
- 2.º.- Tramitar la contratación de las obras, por procedimiento negociado sin publicidad.

2.- Kredituak aldatzeko 4/2015 espedientea.-

Kredituak Aldatzeko Espedientea kontuan hartuta, kreditu gaikuntzen araubidearen bidez, 4 zenbakia duena eta Udal honen 2015ko aurrekontuan izapidetutakoa, eta Idazkari Kontu-hartzaileak igorritako aldeko txostena kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

Lehena.- Kreditu gaikuntzen araubidearen bidez Kredituak Aldatzeko Espedientea onestea, 48.123,74 € eta hurrengo zehaztapenarekin:

2.º.- Expediente de modificación de créditos 4/2015.-

Visto el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito identificado con el nº 4 e instruido dentro del presupuesto de 2015 de este Ayuntamiento, visto el informe favorable emitido por el Secretario-Interventor, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante el régimen de habilitaciones de crédito por importe de 48.123,74 € con el siguiente detalle:

KREDITUAK GAITZEA / HABILITACIÓN DE CRÉDITOS					
DIRU-SARREREN KONTZEPTUAK / CONCEPTO DE INGRESOS					
			Aurreikuspena Previsión	Gauzatzea Realización	Soberakina Excedente
72010		BFA-REN KAPITAL TRANS., AGENDA 21 (ENERGIA ERAGINKORTASUNA) TRANS. DE CAPITAL D.F.B. AGENDA 21 (EFICIENCIA ENERGÉTICA)	0,00 €	11.603,74 €	11.603,74 €
41009		EJ-REN TRANSFERENTZIA ARRUNTAK, INGURUMENA (EEE) TRANSFERENCIA CORRIENTES DEL G.V.MEDIO AMBIENTE (EVE)	0,00 €	6.520,00 €	6.520,00 €
42010		BFA-REN TRANSFERENTZIA ARRUNTAK, HIRIGINTZAKO PLANGINTZA TRANSFERENCIAS CORRIENTES D.F.B. PLANEAMIENTO URBANISTICO	0,00 €	30.000,00 €	30.000,00 €
				48.123,74 €	48.123,74 €
GASTU PARTIDAK / PARTIDAS DE GASTOS					
			Aurreikuspena Previsión	Gehitzea Aumento	Guztira Total
165	62213	ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA EZARTZEKO PROIEKTUA PROYECTO DE EFICIENCIA ENERGETICA EN ALUMBRADO PÚBLICO	0,00 €	11.603,74 €	11.603,74 €
172	22707	INGURUMENEN AZTERLAN ETA LAN TEKNIKOAK ESTUDIOS Y TRABAJOS TÉCNICOS MEDIO AMBIENTE	15.778,40 €	6.520,00 €	22.298,40 €



151	22707	HIRIGINTZAKO AZTERLAN ETA LAN TEKNIKOAK ESTUDIOS Y TRABAJOS TÉCNICOS URBANÍSTICOS	50.000,00 €	30.000,00 €	80.000,00 €
			65.778,40 €	48.123,74 €	113.902,14 €

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta betearazlea denez eta geroko izapiderik behar ez denez, Idazkari Kontu-hartzaileak kontabilitatean adierazi behar du kreditu aldaketa onetsi berria, berehala sartuko dena indarrean.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin necesidad de ulteriores trámites procede que por la Secretaría-Intervención se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

3.- Kredituak aldatzeko 5/2015 espedientea.-

Gastuen aurrekontuko partiden transferentziaren bidez kredituak aldatzeko espedientea ikusita, 5/2015 zenbakia duena eta udal honen aurrekontuan eragiten duena. Ikusita, halaber, Idazkari Kontu-hartzailearen txostenak dioela espediente hori aplikatu behar zaion arautegiaren arabera dela, zehazki Tokiko Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 29. artikulua araberakoa, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

Lehena.- Gastuen aurrekontuko partiden arteko transferentzien bidezko kredituak aldatzeko espedientea onestea; proposamenean xehetasunak adierazten dira eta Udal honen Aurrekontuari dagozkio, jarraian aipatzen den zehaztapenarekin:

3.º.- Expediente de modificación de créditos n.º 5/2015.-

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante transferencia entre partidas presupuestarias de gastos identificado con el nº 5/2015, que afecta al presupuesto vigente de este Ayuntamiento, visto que según el informe emitido por el Secretario-Interventor, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 29 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen:

MURRITZEN DIREN PARTIDAK /PARTIDAS QUE SE REDUCEN					
			Aurrekontua Presupuesto	Murritztea Reducción	Aurrekontu berria Nuevo presupuesto
172	22707	INGURUMENEN AZTERLAN ETA LAN TEKNIKOAK ESTUDIOS Y TRABAJOS TÉCNICOS MEDIO AMBIENTE	22.298,40 €	6.520,00 €	15.778,40 €
151	22707	HIRIGINTZAKO AZTERLAN ETA LAN TEKNIKOAK ESTUDIOS Y TRABAJOS TÉCNICOS URBANÍSTICOS	80.000,00 €	22.018,63 €	57.981,37 €
				28.538,63 €	
ZABALTZEN DIREN PARTIDAK / PARTIDAS QUE SE AMPLIAN					
			Aurrekontua Presupuesto	Handitzea Ampliación	Aurrekontu berria Nuevo presupuesto
165	62213	ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA EZARTZEKO PROIEKTUA PROYECTO DE EFICIENCIA ENERGETICA EN ALUMBRADO PÚBLICO	11.603,74 €	7.735,83 €	19.339,57 €
171	60101	PARESIKO ATSEDENLEKUA AREA DE ESPARCIMIENTO DE PARESI	71.683,13 €	5.316,87 €	77.000,00 €
439	42201	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK UDALEI (ENPLEGUA SUSTATZEA) TRANSFERENCIAS CORRIENTES A AYUNTAMIENTOS (PROMOCION EMPLEO)	0,00 €	6.955,43 €	6.955,43 €
340	62206	ITXAS-ADAR FUTBOL ZELAIA EGOKITZEA ACONDICIONAMIENTO DEL CAMPO DE FUTBOL DE ITXAS-ADAR	0,00 €	8.530,50 €	8.530,50 €
				28.538,63 €	

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta betearazlea denez eta geroko izapiderik behar ez denez, Kontu-hartze Zerbitzuak kontabilitatean adierazi behar du onetsi berri den kreditu aldaketa, berehala indarrean sar dadin onartua.

Segundo.- Siendo este acto firme y ejecutivo, sin necesidad de ulteriores trámites procede que por la Secretaría-Intervención se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

4.- Altamirako kultur etxean iriste erraztasun lanak egiteko diru-laguntzak.-

4.º.- Subvención obras de accesibilidad en la casa de cultura de Altamira.-



Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Zuzendaritzaren 2014ko abenduaren 30eko ebazpenaren berri eman zitzaion Tokiko Gobernu Batzordeari. Ebazpen horren bidez, 101.402,56 euroko diru-laguntza emango zaio udal honi, Altamirako kultur etxean iriste erraztasun lanak egiteko.

Kontuan hartuta:

- emandako diru-laguntza lanen kostu osoaren %41 da (245.344,19 €), eta gainerakoa Udalak jarri behar du (143.941,63 €).
- Udalak ez du diru kopuru hori, ez 2015eko aurrekontuan, ez eta diruzaintzako geldikinean ere.
- planteatutako lanak konplexuegiak dira eraikinaren tamainarako.
- eraikinerako iriste erraztasuna beste modu batera konpon daiteke: dauden erabileretako batzuk berriro kokatuta eta errazagoak diren eraikuntza konponbide batzuk hartuta.

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez:

- Jasotako diru-laguntzari uko egitea.
- Kultur etxean lokalak banatzeko modu zuzenago bat aztertzea.

La Junta de Gobierno Local fue informada de que, por resolución de 30 de diciembre de 2014, de la Dirección de Vivienda del Gobierno Vasco, se ha acordado la concesión a este Ayuntamiento de una subvención de 101.402,56 €, para las obras de Accesibilidad de la Casa de Cultura de Altamira.

Considerando:

- que la subvención concedida supone un porcentaje del 41% del coste total de la obra (245.344,19 €), teniendo que aportar el Ayuntamiento el resto (143.941,63 €).
- que el Ayuntamiento no dispone de esta cantidad, ni en el presupuesto de 2015, ni en el remanente de tesorería.
- que la obra planteada es excesivamente compleja para las dimensiones del edificio.
- que la accesibilidad del edificio puede resolverse mediante la reubicación de algunos de los usos existentes y otras soluciones constructivas más sencillas.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- Rechazar la subvención recibida.
- Estudiar una más correcta distribución de los locales en la Casa de Cultura.

5.- Lanak futbol zelaian.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, jarraian adieraziko diren botoen bidez:

- Kosten Demarkazioarekin kudeaketak egiteari heltzea berriz, Itxas-Adarreko lursailen administrazio kontzesioa eta belar artifizialeko zelai bat eraikitze baimena eskuratzeko (aho batez).
- Klubeko jokalariek eroldatuta dauden udalekin harremanetan jartzea, futbol zelaiaren mantentze-lanetarako laguntza ekonomikoa emateko eskatzeko (aho batez).
- Cengotita Flores y Plantas, S.L. enpresaren aurrekontua onartzea (8.530,50 eurokoa, BEZa barne), zelaia konpontzeko (aldeko sei boto eta hiru abstentzio).

5.º.- Obras en el campo de fútbol.-

La Junta de Gobierno Local, con las votaciones que se indican, acordó:

- Retomar las gestiones con la Demarcación de Costas, para obtener la concesión administrativa de los terrenos de Itxas-adar y autorización para la construcción de un campo de hierba artificial (por unanimidad).
- Ponerse en contacto con los ayuntamientos en los que están empadronados los jugadores del club, para solicitar su colaboración económica para el mantenimiento del campo de fútbol (por unanimidad).
- Aceptar el presupuesto de 8.530,50 (IVA incluido) de Cengotita Flores y Plantas, S.L. para la reparación del terreno de juego (por tres votos a favor y una abstención).

6.- Turismoko teknikaria hautatzea.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, erabaki zuen hurrengo astean elkarrizketa pertsonala egitea turismoko teknikari lanposturako izangaiei (Lanbidek diruz lagundutako lanpostua). Hain zuzen, Udalak jasotako curriculumetako izangaiei.

6.º.- Selección de técnico/a de turismo.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó realizar la próxima semana una entrevista personal a las aspirantes a la plaza de técnica de turismo (subvencionada por Lanbide), cuyos currículos han sido recibidos en este Ayuntamiento.

7.- Ikastaroak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen kirolarekin eta animazio soziokulturalarekin loturiko ondoko ikastaroen aurretiko izen-ematerako deialdia egitea; ikastarook gutxienez hamar lagunek izena emanaz gero antolatuko dira:

7.º.- Cursos.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó convocar la preinscripción de los siguientes cursos deportivos y de animación sociocultural, que se organizarán siempre que se produzcan un número de inscripciones mínimo de diez alumnos:



PILATES/PILATES			
Astelehen eta Asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara		Lunes y miércoles de 19:00 a 20:00	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
63 €	21 €	126 €	42 €
MANTENTXE GIMNASIA/GIMNASIA DE MANTENIMIENTO			
Asteartea eta osteguna 9:15etatik 10:15etara		martes y jueves de 9:15 a 10:15	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
63 €	21 €	126 €	42 €
HIRUGARREN ADINEKO GIMNASIA/GIMNASIA DE LA TERCERA EDAD			
asteartea eta osteguna 17:00etatik 18:00etara		Martes y jueves de 17:00 a 18:00	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
30 €	11 €	60 €	22 €
HIRUGARREN ADINEKO BURUAN MARTXAN/MENTE ACTIVA TERCERA EDAD			
Asteartea 18:00etatik 19:00etara		Martes de 18:00 a 19:00	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
18 €	6 €	36 €	12 €
EUSKERA/EUSKERA			
Astelehen eta Asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara		Lunes y miércoles de 19:00 a 21:00	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
24 €	7 €	48 €	14 €
JOSKETA/COSTURA			
Ostiraletan 19:00etatik 20:00etara		Viernes de 19:00 a 20:00	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
63 €	21 €	126 €	42 €
ESKULANAK/MANUALIDADES			
Astean behin 19:00etatik 20:00etara		Un día a la semana de 19:00 a 20:00	
Erroldatuak/Empadronados		Ez erroldatuak/No empadronados	
Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre	Matrikula/Matricula	Hiru hilabetero/Al trimestre
63 €	21 €	126 €	42 €

8.- Jaien egitaraua eta aurrekontua.-

Tokiko Gobernu Batzardeak aho batez erabaki zuen Jai Batzardeak eginiko herriko hainbat jaien egitaraua eta aurrekontua onartzea.

8.º.- Programa y presupuesto de fiestas.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el programa y presupuesto de las distintas fiestas locales, elaborado por la Comisión de Fiestas.

9.- Biztanleen Erroldan bajak.-

Toki Erakundeetako Biztanleei eta Mugei buruzko Arautegiaren 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Errolda Batzardeko Lurralde Atalaren aldeko txostena ikusita, Tokiko Gobernu Batzardeak aho batez erabaki zuen Biztanleen Udal Erroldan ofiziozko baja ematea, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik, ondoko hauei:

- A. A. U.
- J. U. Z.

9.º.- Bajas del Padrón de habitantes.-

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 72 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial, y visto el informe favorable emitido por la Sección Provincial del Consejo de Empadronamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar de baja de oficio en el Padrón Municipal de Habitantes, por inscripción indebida, a las siguientes personas:

- A. A. U.
- J. U. Z.



10.- Ibilgailuaren baja.-

Udal honek bideratutako espedientea ikusirik, bazterrera utzitako ibilgailu bat kendu eta hondar tratamendua egiteko. Kontuan hartuta Opel etxeko ibilgailuak (Astra modelokoa, BI-4151-CL matrikula duena eta J. M. D. A. duena titularra) bere kabuz mugitzea ezinezko egiten duten kalteak dituela, egoera horretan duela hilabete ugari dagoela eta 2015eko apirilaren 21ean eskatu zitzaiola titularrari hilabete bateko epeak ibilgailua kentzeko (ohartarazi zitzaion ez bazuen egiten etxeko hondakin gisa tratatuko zela eta 22/2011 Legean, uztailaren 28koan, hondakinei eta zoru kutsatuei buruzkoan, ezarrita dagoena aplikatuko zitzaiola, eta, hortaz, ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramatea aginduko zela suntsitzeko eta deskutsatzeko). Hala eta guztiz ere, ez du ibilgailua kendu.

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, erabaki zuen ibilgailu horren hondar tratamendua baimentzea, ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramateko aginduta, han suntsitu eta deskutsatzeko.

10.º.- Baja de vehículo.-

Visto el expediente que se tramita por este Ayuntamiento para la retirada y tratamiento residual de vehículo abandonado, y teniendo en cuenta que el vehículo marca Opel, modelo Astra, matrícula BI-4151-CL, cuyo titular es J. M. D. A., presenta desperfectos que hace imposible su desplazamiento por sus propios medios, hallándose en esta situación desde hace meses y que con fecha 21 de abril de 2015, se requirió a su titular, para que en el plazo de un mes procediera a la retirada del vehículo, advirtiéndole que si no lo hiciera se procedería a su tratamiento como residuo doméstico siéndole de aplicación lo dispuesto en la Ley 22/2011, de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados, ordenando su traslado a un centro autorizado de tratamiento de vehículos para su destrucción y descontaminación, no habiéndose hecha efectiva la retirada del vehículo.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar el tratamiento residual del citado vehículo ordenando su traslado a un Centro Autorizado de Tratamiento de Vehículos para su posterior destrucción y descontaminación.

11.- Goialde tabernaren idatzia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, F. J. M. M.ren eskaera onartzea (Altamirako Goialde tabernako titularra). Izan ere, abuztuaren 8an, Itsasoko Ama Birjinaren egunaren bezperan, bi musika taldek emanaldia egiteko, aparkatzeko lau plaza gordetzeko eta musikarien osotasuna zaintzeko eta eremua sortzeko segurtasuneko hesi bikoitza kokatzeko eskaera egin zuen.

11.º.- Escrito del bar Goialde.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de F. J. M. M., titular del Bar Goialde de Altamira, para la actuación de dos grupos de música el día 8 de agosto, víspera de Virgen del Mar, así como la reserva de cuatro plazas de aparcamiento y la colocación de doble valla de seguridad para salvaguardar la integridad de los músicos y crear espacio.

12.- “Ortutik Elkartea”ren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, “Ortutik Elkartea”ren diru-laguntza eskaerari ezezkoa ematea. Zehazki, “Arte, natura eta gastronomía II. esperientzia” izeneko eskaerako eskatu zuen. Honengatik esan zion ezetz:

1. Elkartea ez dago izena emanda udal erregistroan.
2. Ekitaldia egin behar zen egun berean aurkeztu zen eskaera.
3. Eskatutako zenbatekoa jardueraren gastuak baino handiago da.

12.º.- Solicitud de “Ortutik Elkartea”.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la solicitud de subvención de “Ortutik Elkartea” para la celebración de “Arte, natura eta gastronomía II. esperientzia”, dado que:

1. La asociación no está inscrita en el registro municipal.
2. La solicitud se presentó el mismo día de la celebración.
3. El importe solicitado es superior a los gastos de la actividad.

13.- Harri Berri Elkartearen eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, erabaki zuen “Harri Berri Elkartea”ri onartzea Santiago eta Santa Ana jaietako idi probak antolatzeke egindako material eskaera batzuk, eta bai 3.000 euroko diru laguntza ere (%80 jarduera egin aurretik ordainduko da, eta gainerakoa, likidazioa aurkeztu eta gero).

13.º.- Solicitud de Harri Berri Elkartea.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder a “Harri Berri Elkartea” varias peticiones de materiales realizadas para la organización de las pruebas de bueyes de fiestas de Santiago y Santa Ana, así como una ayuda económica de 3.000 € (que se abonará el 80% con anterioridad a la actividad y el resto previa presentación de la liquidación).



14.- Landa bideak erabiltzeko lizentzia egurra ateratzeko.-

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, J. I. L. A. baimena ematea egurra ateratzeko landa bideak erabiltzeko (5/15 espediente). "Mape Baso" mendiari dagokio, 9. poligonoko 218. lursaila. Altamira-San Kristobal bidea erabiliko du, 179,40 estereoko kopuru batean. Dena den, Udalarari jakinarazi beharko dio noiz hasi behar duen ateratzen.

14.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a J. I. L. A. (Expte. 5/15), correspondiente al monte "Mape Baso", parcela 218 del polígono 9, utilizando el camino de Altamira-San Cristóbal, en un número de 179,40 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca.

15.- Musika ikastaroetarako diru-laguntzak.-

Aurkeztutako eskaerak ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Segundo Olaeta musika eskolan musika ikastaroetan parte hartzeagatik diru-laguntza hauek ematea:

15.º.- Subvenciones para cursos de música.-

Vistas las solicitudes presentadas, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó concederle las siguientes ayudas por la asistencia a cursos de música en la Escuela de Música Segundo Olaeta:

IKASLEA/ALUMNO	DIRULAGUNTZA/SUBVENCIÓN
B. Z. D.	225,8
U. U. S.	225,8
G. E. S.	130,4
A. B. J.	118,7
A. B. J.	225,8
Z. H. A.	225,8
I. V. L.	225,8
X. O. D.	130,4
J. A. L.	225,8
L. G. M.	225,8
J. A. T.	225,8

16.- Hirigintza arloko lizentziak.-

Jaulki diren txosten juridikoak eta teknikoak ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, proposatu zuen hirigintza arloko lizentzia hauek ematea (txosten horietan jasota dauden baldintzak betetzearen mende geldituko dira eta haien edukiaren berri eman beharko zaie eskatzaileei):

- 1.- M. I. I. E., lehen okupazioko lizentziarako (18/15 espediente), San Bartolome auzoan, 48. zenbakian.
 - 2.- J. R. (21/2015 espediente), sasoiko fruten eta barazkien ekoizpen agro-ekologikoko negutegien 3.080 metro koadro kokatzeko, San Bartolome auzoan (lursailen bankua), 60.266,85 euroko aurrekontuarekin.
 - 3.- S. E. O.-E., etxebizitzako teilatuan kalte hartutako tokietan teilak berriro jartzeko (23/15 espediente), Axpe auzoan, 9. zenbakian, 459,00 euroko aurrekontuarekin.
 - 4.- Busturiko Axpe 130.eko etxejabeen elkarte, horma bat eraitsi eta beira-zuntzeko sarea eta blokea jartzeko (26/15 espediente), Axpe 130.ean, 4.942,50 euroko aurrekontuarekin.
- A. eta J. A. E.k aurkeztutako eskaera ikusita (22/15 espedien-

16.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes jurídicos y técnicos emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

- 1.º.- M. I. I. E., para licencia de primera ocupación (Expte. 18/15), en el barrio de San Bartolomé, 48.
 - 2.º.- J. R. (Expte. 21/2015), para la instalación de 3.080 m² de invernaderos para la producción agro-ecológica de frutas y verduras de temporada, en el barrio San Bartolomé (banco de tierras), con un presupuesto de 60.266,85 €.
 - 3.º.- S. E. O.-E., para retejo de zonas afectadas en tejado de vivienda (Expte. 23/15) en el barrio Axpe, 9, con un presupuesto de 459,00 €.
 - 4.º.- Comunidad de Propietarios Axpe 130 de Busturia, para demolición de muro y colocación de bloque y malla de fibra de vidrio (Expte.26/15), en Axpe 130, con un presupuesto de 4.942,50 €.
- Vista la solicitud presentada por A. y J. A. E. (Expte. 22/15),



tea), mendiak bereizteko lizentzia eskuratzeko (2. poligonoko 129. lursaila eta 15. poligonoko 104. lursaila), Batzordeak, aho batez, proposatu zuen eskatutako lizentzia ematea beharrezko ez izatea aitortzea. Izan ere, planteatutako jarduketak ez da sailetan zatitzekotzat hartzekoa, Urdaibaiko Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Gidarian deskribatuta dauden baldintzen arabera, banatzekoak diren lursailen azalera eta mugak ez baitira aldatzen.

Batzordeak, aho batez, proposatu zuen, hilabete bateko epearekin, K. F.k eskatutako luzapena onartzea. Hain zuzen, bere jabetzako etxebizitzan (Altamira, 67) egin dituen lanak legezatzeko udal honek egindako errekerimenduari erantzuteko eskatu du luzapena.

Era berean, Batzordeak, aho batez, proposatu zuen oniritzia ematea A. M. Z.k aurkeztutako gauzatzeko proiektuari. Zehazki, Altamira auzoan etxebizitza familiabakar bat eraberritzeko aurkeztu du. Udal arkitekto aholkulariaren txostenean dauden baldintza partikularrak onartu dira, eta, hortaz, txosten horren berri eman beharko zaio eskatzaileari.

para licencia de segregación de montes (parcela 129 polígono 2 y parcela 104 polígono 15), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó declarar la innecesariedad de conceder la licencia solicitada, dado que la actuación planteada no es constitutiva de parcelación en los términos descritos por el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai ya que no se modifican la superficie y los límites de las parcelas objeto de reparto.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder, con un plazo de un mes, la prórroga solicitada por K. F. para contestar al requerimiento de este Ayuntamiento para la legalización de las obras que ha realizado en la vivienda de su propiedad, en Altamira 67.

Asimismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar el visto bueno al proyecto de ejecución presentado por A. M. Z., para la reforma de una vivienda unifamiliar en el barrio de Altamira, aprobándose las condiciones particulares contenidas en el informe del Arquitecto Asesor Municipal, del cual deberá darse traslado al solicitante.

17.- Telefónicaren jardueren espedientea.-

Udal arkitekto aholkulariak jaulkitako aldeko txostena irakurri ondoren (jardueren lizentzia espedientean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari buruzkoa), Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, erabaki zuen Axpeko biltegian sakelako telefonoetarako antena bat martxan jartzea baimentzea, Telefónicak bideratutakoa.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

17.º.- Expediente de actividades de Telefónica.-

Dada lectura al informe favorable emitido por el Arquitecto Asesor Municipal, sobre el cumplimiento de las medidas correctoras establecidas en el expediente de licencia de actividades, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar la puesta en marcha de una antena de telefonía móvil en el depósito de Axpe, tramitado por Telefónica.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez